

## **MOZIO ARRUNTA**

### **HIRIKO MERKATARIZA PLANA DELA-ETA**

Eneko Goia Laso EAJ/PNVko udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNTA aurkezten du, Donostiako Merkataritza Plana dela-eta.

#### **JUSTIFIKAZIOA**

2013ko abenduaren 10ean Donostiako Udalak, Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoako Bazkondeak eta SSHops Donostiak hitzarmena sinatu zuten Hiriko Merkataritza Plataforma indartzeko eta sustatzeko; hitzarmen horretan alde guztiek hartutako konpromisoetako bat Donostiako merkataritzaren plan estrategikoa burutzea izan zen. Eusko Jaurlaritzak finantziatu behar zuen plan hori Donostiako Udalak burutu behar zuen.

Donostiako arduradunek plana bi bloketan garatzea erabaki zuten; lehenaren helburua hiriko eskaintza eta eskaera komertzialari buruzko azterketa egitea zen eta bigarrenarena, merkataritza antolatzeko era ezberdinak aztertzea. Udal gobernua pasa den abenduan jakinarazi zuen lehen atal horren zenbait emaitzaren berri eta orduan adierazi zuten, aurtengo lehen seihilekoan amaituta egongo da hiriko merkataritza plana. Plan hori, beraz, alorreko eragileekin eztabaidatzeko prest egon behar du eta guztiz garrantzitsua da hirirako Plan Estrategiko horri babesa ematea.

Horiek horrela, EAJ/PNV udal taldeak honako mozioa aurkezten du:

#### **MOZIOA**

Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak Donostiako Merkataritza Plan Estrategikoak zehaztuko dituen eta haren eskumenekoak diren lan ildoak garatzeko konpromisoa hartzen du.

Donostia, 2015eko apirilaren 13a

Izpta.: Eneko Goia Laso